

puntuia



**GORKA
IDIGORAS**

KASKOA JANTZI ETA TXAPELA IRABAZI



PUNTUA 165

2018-10-05 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkiaren egilea:
Imanol Beloki.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Bat-batean Yeraí Díaz Ikarán | 45 | Gadgetmania |
| 6 | Irudiz Musika eta dantza,
750 urte ospatzeko | 46 | Handitzen, handitzen
<i>Plazan bazan</i> |
| 8 | Mundutik Errumania: sexu
berekoen arteko ezkontza | 47 | Jaioberriak |
| 10 | Erreportajea Gorrek entzunarazi
egin dituzte aldarrikapenak | | IRITZIA |
| 20 | Elkarrikketa
Leopoldo Cruz, EHUko doktorea | 3 | Nire txanda
Nagore Ipiña
<i>Komunitatea</i> |
| 26 | Osasuna Hautsak harrotuz | 16 | Hainbat aburu
Martin Calvo
<i>Joseba Sarrionandia Zinemaldian</i> |
| 28 | Kirola Koldo Lamikiz, txirindularia | 16 | Eztabaida
Ordaindu, arropa probatzeagatik |
| 30 | Adituen esanetan Autoritatea | 17 | Xixili Helena Azkarragaurizar |
| 33 | Otorduan Zelai Zabala:
ospakizunetan espezialista | 17 | Errematea Joseba Gabilondo
<i>Markes Harrotasunaren negozioa</i> |
| 34 | Moda <i>Animal print-a</i> | 18 | Talaiatik
Ikastola, bai; zergatik?
<i>Joseba Iñaki Etxezarreta</i> |
| 36 | Motorra
Gorka Idigoras, ralliesprint pilotua | 44 | Komunikazioa
Gorka Etxabe
<i>15 urteren ostean, 'Artemanero'</i> |
| 38 | Gure artistak
Asier Elgezua arrasatearra | | |
| 40 | Kultura Estanpazioa | | |
| 42 | Gure altxorrak
Oñati: parrokiako Santa Marinaren
aldarea | | |

puntuia

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate

Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kirola eta banaketa
Igone Osinaga

Maketazioa
Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943-25 05 05
Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Komunitatea



NAGORE IPIÑA

Komunitatea da gizatalde kohesionatua, edo beharko luke, behintzat. Komunitatea da elementu komun en ondorioz eratzen den ekosistema bat, edo beharko luke, behintzat. Komunitate askoren parte gara, edo hori pentsatu nahi dut. Partekatzen ditugu kultura(k), hizkuntza(k), mundu ikuskera(k), interesa(k) eta espazioa(k) besteak beste. Koordenatuak ere; 43°04'03.7"N 2°29'40.8"W, adibidez. Koordenatu horiek dira gure auzokoak, gure bizilagunen komunitatekoak.

Gaur izan dugu bizilagunen komunitateko bilera. 18:00etan lehenengo deialdia. Espero bezala, asistentzia eskasa. Hamaseititik bost. 18:30ean bigarrena; zazpi kide. Deitutakoen erdia etorriko zela uste zuen lehendakariak, baina, baten faltan, gai ordena banatu eta bilerari ekin dio. Lehenengo puntuarekin hasi baino lehen hartu du hitza bizilagun batek. Beste hiruk altxatu dute eskua lehenengo berba horren ostean. Domino-efektua. Komunitatearen eskumenekin zerikusirik ez duten lau eskaera egin dira bilera hasi baino lehenago. Sekula ez dut hori ikusi gure komunitatean. 19:10. Urduritzen hasi naiz. Norberaren beharrak lau kide horien eskaeretan. Komunitatea ez da, ba, *com + munis*? Komunitatea ez da, ba, *erantzunkidetasuna*? Jokoz kanpo uzten naute horrelako egoerek; ni-a gu-aren gainetik ere gure komunitate txikian... Orain arte pentsatu izan dut koordenatuak partekatzea baino gehiago dela bizilagunen komunitatea; gure komunitatea.

19:30ak pasa eta oraindik ni-etan trabatuta bilera. Jaiki eta bileratik alde egiteko prestatu dut neure burua. Eskua aulkian jarri eta altxatzen hasi naizenean gelditu du komunitateko lehendakariak eztabaida. Berriz ere eseri naiz. Lehenengo puntua, bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta "norberak dakarrena" azkenik. Inork ez du ezer esateko orain. Bileratik irten eta lehendakariak barkamena eskatu dit. Antza, nire pentsamenduak nire aurpegian islatu dira. Berea ez da ardura, erantzunkidetasuna bada komunitatearen oinarria, edonork birbideratu zezakeen bilera; baina ez dugu egin. Eguneroko inkoherentzia horietako bat. Etxera heldu eta komunitateko bilera burutik kendu ezinka nabil. Orduan etorri zaizkit Marina Garcesen hitzak gogora: "Beste modu batera pentsa dezakegu bakarrik beste modu batera bizi baldin bagara, eta beste modu batera biziko gara soilik ausartzen bagara horrekin batera beste modu batera pentsatzen". Gaur ulertu ditut Marinaren hitzak. ■■■

**URDURITZEN HASI
NAIZ; NORBERAREN
BEHARRAK LAU KIDE
HORIEK ESKAERETAN**

Yerai Diaz Ikaran

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: EITB

Madrilen berriemaile ibili ostean, ondarrutarrek iluntzeko *Gaur egun*-en gidaritza hartu du denboraldi berrian.

Nola doaz lehen asteak *Gaur egun*-en aurpegia izanda? Ondo, ikasten, erritmoa hartzen.

Hasieran, bertigoa eta urduritasun handia dago; izan ere, bietan kazetaritza egin arren, ez da gauza bera kalean edo platoan egotea. Gero eta hobeto egiten saiatzen nabil. Aurkezle moduan ditudan helburuak edozein kazetarik dituen berberak da: ahalik eta ondoen komunikatzea; jendeak esaten duguna ulertzea; eta euskaldunei informazioa profesionaltasunarekin, zintzotasunez eta objektibotasunez eskaintzea.

Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Kazetaritza ikasten zenbiltzanean, horrelako lan batekin egiten zenuen amets? Inguruan kazetaririk ez izan arren, txikitatik datorkit kazetaritza; umetatik izan dut jakin-mina, galderak egiteko joera. Baina ez nuen neure burua telebistan edo aldizkari batean edo egunkari batean imajinatzen; ez nekien non amaituko nuen. Gerora, Kazetaritza ikasketak egiten hastean, gerrako berriemaile irudikatzen nuen etorkizuna, baina bideak beste leku batzuetatik eraman ninduen; ikus-entzunezkoen esparrura, batez ere. Kazetari izan nahi nuela banekien, baina sekula ere ez nuen pentsatu aurkezlea izango nintzenik.

Gaurkotasun politikoa dagoen moduan egonda, inbidiarekin edo lasaitasun ederrarekin begiratzen diozu Madrili? Batzuetan, badaukat Madrilgo lankideen inbidia. Kalean jendearekin egotea eta gertatzen den guztia gertutik ikustea faltan igartzen dut. Aurkezleok leku itxi batean egoten gara, eta kalean egotearen, informazioa hasieratik jasotzearen xarma galtzen dugu. Dena den, platoko lana ere erronka bat da niretzat. Orain, hau tokatzen da; etorkizunean, batek daki! **Han ezagututako politikarien artean zein da atseginena kazetariekin?** Ez nuke jakingo esaten... Joan aurretik neukan irudia zen hotzak,

urrutikoak izango zirela, baina, behin barruan zaudela, normalean, normalak dira. Hori bai, argi eduki behar da politikari batek kazetari batekin hitz egiten duenean interesen bat dagoela. Euskal politikariekin geneukan harreman handien guk. **Mugikorrean datu gabe zaude. Zenbateraino larrituko zara?** Normalean, asko! Mugikorra gure lanerako tresna da, eta, kanpora zoazenean daturik ez izatea deskantsua izan daitekeen arren, egunerokoan larritu egingo nintzateke: Twitter, informazioa jasotzeko alertak... Lana dela-eta horiek behar izaten ditut.

Zein sare sozial eta zertarako erabiltzen duzu?

Zer gertatzen ari den jakiteko, titularrekin geratzeko, Twitter, eta, egunkarietan agertzen direnak jakiteko, horien aplikazioak. Instagram kontu pertsonaletarako erabiltzen dut; eta, neurri txikiagoan, baita Facebook ere.

Zer geratzen zaizu Gambian GKE batekin eman zenituen sei aste haietatik? Asko. Jarraitzen dut haiekin lanean: diru laguntzak lortzen lagundu, bazkideak lortzeko kanpainak egin... Itzuliko nintzateke; asko ikasi nuen esperientzia hartatik. Bueltatzean, ez nintzen pertsona bera, eta gogorra egin zitzaidan itzulera: hemen denetik dugula ikustea eta han ez dutela lehentasunezko beharrianetarako baliabiderik. Han sei aste egon nintzen, eta hori ez da denbora luzea, baina hango bizitzan murgildu nintzen eta hango jendearen irribarreak pentsarazi egiten dizu. Itzultzean, lehengo bizioak berriz ere hartu arren, bizitza beste era batera ikusten dudala esango nuke.

Norbaitek jatekoarekin konkistatu nahi bazaitu, zer prestatu behar du? Jatuna naizenez eta denetarik gustatzen zaidanez, edozer! Ondarrutarra naizenez, arrain on bat, edo txuleta eder bat... Eta postrerako, txokolatea.

Jakingo zenuke esaten zeintzuk sartu diren aurtengo *Gran Hermano* VIP-en? Ez. Garai batean, lagunekin-eta ikusten nituen horrelakoak, baina orain ez daukat denborarik. Telebista bai ikusten dut; batez ere, goizetako tertuliak-eta eguna nolakoa datorren jakiteko. ■■■





Ehunka urte eta ikusle

ARGAZKIA: IMANOL SORIANO

TESTUA: JOSU BILBAO

Bergarako 750. urteurreneko kontzertu berezian, musika, dantza eta udaletxeko horma sendoetan proiektatu ziren irudi ikusgarriak izan ziren protagonista nagusiak. Izan ere, San Martin plaza ezohiko agertoki bihurtu zen pasa den egubakoitzean. Ikuskizuna zoragarria izan zen, eta, Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren eskutik, doinu herrikoi eta klasikoekin gozatu zuten bergarrek. Gainera, herriko historiaren pasarte nabarmenenak proiektzio ikusgarriei irudikatu zituzten, eta ikuskizunak bukaera borobila izan zuen, suziriekin eta San Pedro elizako kanpai hotsekin. ■

Sexu berekoen arteko ezkontza

ERRUMANIA



AINARA BORDES

ERRUMANIAN DAGOEN ARRASATEARRA

ARGAZKIAK: A.B.

Errumania urriaren 6 eta 7an jazoko den erreferenduma prestatzen ari da. Sexu bereko ezkontzak irmoki debekatzea du helburu.

Gaur egun, Errumaniako Konstituzioak –estatuaren legerik gorena–, terminologia kontu bat dela eta, ezkontzaren definizio irekia dauka. Ezkontza bi *bikotekideren* bateratzea bezala definitzen da bertan. Horrek esan nahi du sexu bereko ezkontzak legeztatuko balira –oso egoera irrealista, gaur egungo politikak ikusita–, konstituzioa ez litzatekeela traba izango lege horiek aurrera eramateko.

Egoera hipotetiko hori gauzatzeko aukera txikiena ere ekiditeko, konstituzioa aldatzeko erreferenduma egin nahi da Errumanian. Familia tradizionalaren alde, ezkontzaren kontzeptua birdefinitzea du helburu, *bikotekideen bateratzea* izatetik, *gizon eta emakume arteko bateratzea* izatera pasatuz. XXI. mendeko aurrerapen sozial eta kulturalak ikusirik, atzerapauso ikargarria, zinez.

Ohiko familiaren alde

Konstituzioa aldatzeko mugimendu hori *Coalitia petru Familie* (Familiarentzako Koalizioa) izeneko gobernu



Harrotasun Eguna Bukaresten.

kanpoko erakundeak hasi zuen, 2016an. Eliza ortodoxoaren laguntzarekin, *Coalitia petru Familie*-k hiru milioi pertsonaren firmak batu zituen konstituzioaren berrikuspena eskatzeko. Eskaera hori Kongresura iritsi zen eta 2017an Kongresuak proposatu zuen aldaketa hori erreferendum baten bitartez erabakitzea.

Aurtengo irailaren 11n, konstituzioa aldatzeko lege proposamena onartu zuen Senatuak. Alderdi politiko gehienak familia

tradizionalaren alde agertu ziren. 107 senatarik eman zuten, hain zuzen ere, aldeko botoa: gobernuan dauden Alderdi Sozialdemokratek – Partidul Social Democrat (PSD)–, beraiekin koalizioan dauden ALDE alderdikoek – Alianta Liberalilor si Democratilor–, Alderdi Liberal Nazionalak –Partidul National Liberal (PNL)– eta Batasun Hungariarrak –Uniunea Democrata Maghiara din Romania (UDMR)–. Alderdi bakarra agertu zen kontra: Errumania Salbatu Elkartasuna –Uniunea Salvaati Romania (USR)–.

Bi egun bozkatzeko

Hainbat aldaketa izan ditu hasierako proposamenetik amaierako idatzira: hasierako ideia erreferenduma egun

**KONSTITUZIOA
ALDATZEKO
ERREFERENDUMA EGIN
NAHI DUTE, FAMILIA
TRADIZIONALAREN ALDE**



Emakume taldea LGTB eguna ospatzen.

bakarrean gauzatzea zen. Orain, bi egun emango zaizkio gizarteari bozkatu ahal izateko –urriaren 6a eta 7a–. Aldi berean, gutxieneko partaidetza ere aldatu egin da. Konstituzioa aldatzeko eskatzen den gutxieneko %35eko partaidetzaren ordeaz, kasu honetan, %30ekin nahikoa izango da erabakia loteslea izateko –derrigorrez aplikatu beharrezkoa–. Egun, 18,9 milioi pertsona agertzen dira Errumaniako hautesle erregistroetan; beraz, gutxienez, 5,6 milioi pertsonak bozkatu behako lukete loteslea izateko.

Laurentiu Strezak, Ardeal metropoliko apezpikuak, animatu egiten ditu erlijio guztietako sinestunak bozkatzera. Herrietako apaizei eskatu die, igandeko meza eman ondoren sinestunekin

batera, eliza osoa bozkatzera joateko. Haren hitzen arabera, oso garrantzitsua da familia tradizionalaren aldeko botoa ematea. Besteak beste, bere hitzetan, bikote homosexualen bateratzeak onartuz gero, umerik izan ezin ditzaketenez, sinestunei kenduko dizkiete beraien haurrak.

Ildo antzerakoan hitz egin du Luvii Dragneak, PSDko presidenteak –gubernuan dagoen partidua–. Haren arabera, "une erabakigarria da errumaniarren zinezko

**URRIAREN 6AN ETA
7AN BOZKATUKO DUTE
ETA %30EKIN
ERABAKIA LOTESLEA
IZANGO DA**

balioentzat". Dragneak "familiarren alde" bozkatuko du, bere zentzu tradizionalenean.

Bozkatu ala ez?

Bukaresten bizi den zenbait gazterentzat, egoera oso gatazkatsua da. Errumania oso herrialde erlijiosoa da eta badakite Elizak izango duen boterea. Aldaketa horren kontra daudenek ez dakite zein den erabakirik onena, bozkatzera joatea edo ez joatea. Bozkatzuz gero, %30eko gutxieneko partaidetzara iristen lagunduko dute, eta badakite bozkatuko dutenen gehiengoa balio tradizionalen aldekoa izango dela. Bozkatu ezean, ordea, baiezkoa konfirmatuko dute. Horra hor zalantza. Zenbait elkartek diote hobe dela ez bozkatzera, arrazoi berdintsuengatik. Esaterako, MozaiQ LGTB taldeak erreferendumari boikota egitera deitzen du, gutxieneko partaidetza hori ez lortzeko esperantzarekin.

Azkenik, erreferendum hori gobernuaren estalki bat besterik ez dela dioenik ere badago. Ustelkeria kasuak ezkutatu nahian, eta horiek despenalizatzeko gauzatu izan diren hainbat erreformaren haserrea lasaitzeko ahaleginetan, herria *batzeko* estrategia hutsa dela diote hainbatek. Ikusteko dago zer eragin izango duen. ■



Gorrek entzunarazi egin dituzte aldarrikapenak

Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna aldarrikapenez beteta ospatu zuten pasa den domekan. Aurrerapen asko izan diren arren, oraindik ere keinu hizkuntzaren legearen "aplikazio erreala" eskatzen du gorren komunitateak. Bergaran, bestalde, gorren eskolarekin ia 50 urte daramatza lanean Aransgi elkarteak. Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Euskal Gorrak eta Aransgi**.



Bilboko udaletxearen aurrean bukatu zuten ibilaldia, Pertsona Gorren Nazioarteko Egunean, pasa den aste bukaeran.

Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna izan zen joan den domekan, irailaren 30ean, eta, urtero moduan, iraileko azkeneko astea eta urriko lehenengoa baliatzen dute hainbat elkarteek gortasunaren eta gorren komunitateak dituen aldarrikapenen gainean kontzientziatzeko. Aurten, hamar urte beteko ditu Espainiako keinu hizkuntza legeak, eta lege horren aplikazio "erreal eta efektiboa" eskatzeko eta aldarrikatzeko manifestazio erraldoia egin zuten pasa den aste bukaeran, Madrilén, estatuko hainbat elkarteek. Gainera, zapatuan, Bilboko kaleetan zehar martxa bat egin zuen Euskal Herriko gorren komunitateak, eta Debagoieneko hainbat kidek ere parte hartu zuten bertan. Hain zuzen ere, legearen aplikazio hori eskatzeaz gain, "keinua hizkuntza doan ikasteko eskubidea, hezkuntza elebiduna jasotzeko eskubidea eta lan munduan aukera berak izateko eskubidea" ere aldarrikatu dituzte, besteak beste.

Bergaran Aransgi elkarteak duen egoitzan lanean dihardu Mercedes Iñarra arrasatearrak. Iñarrak aldarrikapenen nondik norakoak azaldu dizkio PUNTUAri: "Keinua hizkuntzaren legea 2007an onartu zuten, eta, horren arabera, erakunde publikoetako edozein aktibitate interpretatzen batek egon beharko luke. Hori da puntu nagusienetako bat, beti ez dute eta aukera hori aurkitzen. Horregatik, askotan, gorrek zailtasunak izaten dituzte, adibidez, medikuarenera doazenean edo beste edozein zerbitzu behar dutenean. Interprete bat topatzeko zailtasun ugari izaten dituzte,

BERGARAKO GORREN ESKOLAN BAILARAKO ETA INGURUKO HERRIETAKO 25 IKASLE DAUDE GAUR EGUN

nahiz eta legez onartuta dagoen. Baina, errealitatean, azken urteetan hobetzen joan den arren, ia beti aurkitzen dituzte oztopoak. Gaur egun, guztiak ez, baina gor gehienak keinu hizkuntzaren erabiltzaileak dira, eta, bizitza aurrera doan neurrian keinu hizkuntzarena aldarrikapen nagusi bihurtzen da. Aurretik, azpitu-luen aldarrikapena izan zen, baina, gaur egun, oso aukera zabala dago azpitu-luei dagokienez; edozelan ere, oraindik, keinu hizkuntzarekiko legearen aplikazio erreala eskatu beharrean daude".

Aransgi, bailaran ere lanean

Gipuzkoan 1967an sortu zen Aransgi elkarte, haur gorren familia talde baten ekimenez, euren seme-alaben beharrei arreta egokiaren bidez erantzuteko asmorekin. Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarte da elkartearen izena ofiziala, eta 50 urte baino gehiago daramatza pertsona gorrekin lanean. "Gipuzkoako gor

guztien bizi-kalitatea hobetzeko eta gorrieriak pertsonaren eguneroko bizitzan eragiten dituen oztopoak arintzeko lanean" dihardu, hain zuzen ere, elkar-teak. Horretarako, entzumen zailtasunak dituzten pertsonen alderdi mediko eta psikologikoez, eta baita hezkuntza, lan, gizarte eta familia alorrez ere arduratzen dira. "Gorrei eta euren familiei arreta orokorra" eskaintzen diete, beraz, Donostian, Tolosan eta Bergaran dituzten zentroetan.

"Hezkuntzaz gainera, medikuaren arreta, hau da, diagnosis eta aparatuen



Aransgiko Bergarako egoitza.

gainekoak ere lantzen ditugu Aransgin. Hezkuntzan, berriz, alde logopedikoa eta ikasgaiak ere lantzen dira. Gainera, ikasleak bi esparrutan mugitzen dira, entzuleekin eta gorrekin. Adinaren arabera, beraz, eskola arruntan egoten dira, baina baita Aransgiko beste gor batzuekin", adierazi du Mercedes Iñarrak.

Audiofonoen gaineko informazioa ere eskaintzen du AransGik, baina, teknologiar dagokionez, ez dela horrenbesteko aurrerapena egon nabarmendu du arrasatearrak: "Teknologia asko aurreratu da, baina audiofonoen beharra izaten jarraitzen dute. Audiofonoak gero eta hobeak, txikiagoak eta erosoagoak dira, bai, baina ez da lortzen, oraindik, inor entzule bihurtzea. Bilakaera gertatu da, eta duela urte batzuetako audiofonoek eta gaur egungoek ez dute zer ikusirik, potentziari eta tamainari dagokionez, batez ere, baina gure lan egiteko modua ez da horrenbeste aldatu".

Gailuen gaineko aholkularitza ere eskaintzen du Gipuzkoako elkar-teak: "Donostian dugu medikua, eta bertan artatzen dituzte. Gainera, ikasle gor-rik ikastetxe arruntetara joaten direnean,



adibidez, laguntza teknikoa ere eskaintzen dugu. Horrela, ikasleek eduki ditzaketen gailuez gain –audiofonia edo inplante koklearra–, ikastetxean, agian, FM gailu bat erabili dezakete –tarteko zaratak murrizten dituen beste gailu bat da, eta horren bitartez soinua zuzenago heltzen da–. Horiek jarri eta laguntza teknikoa ere eskaintzen dugu. Inplante koklearrei dagokienez, batez ere, gor sakonei, ohiko audiofonoek ez duten lortzen entzumen maila ematen diete. Hala ere, gailuek lortzen duten hobekuntza hori ez da entzulearenarekin parekatzen".

Bergaran ia 50 urte lanean

Aransgi elkarteak duela 48 urte ezarri zuen eskualdeko gorrendako arreta zentroa Bergaran. Izan ere, 1970ean inauguratu zuen bertan egoitza, eta ondoren, 1977an, zentroa handitu egin zuten. Gaur egun, 25 ikasleri ematen diote zerbitzua Boni Laskurain kalean duten egoitzan. "Bergarako eskola txikia da, baina inguruko herrietako ikasleak ere etortzen dira hona: Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Legazpi, Elgoibar... Gaur egun, 0 eta 18 urte arteko 25 ikasle ditugu. Horrez gain, ikasle ohiei ere ematen diegu zerbitzua. Hau da, aurretik gure ikasleak izan direnei edo ez, lan munduan edo modulu mailetan jarraipena egiteko asmoarekin", azaldu du Mercedes Iñarra arrasatearrak.

"Gure lana, alde batetik, hezkuntza mailan curriculum arrunta osatzea izaten da –matematika, historia, gizartea...–. Horiek indartzea, babesa eta estrategia ezberdinak emanez. Bestalde, guretako oso garrantzitsua den beste curriculum bat dago, berariazkoa edo euren zehatza dena. Hau da, gorrek txikitatutako jakitea gor izateak baduela eragin bat euren izaeran eta euren funtzionatzeko eran. Horregatik, estrategiak ematen dizkiegu, bakoitza bere burua ezagutzen joateko eta ahalik eta modu orekatuenan entzuleen artean eta gorren artean mugitzeko; orokorrean, bi komunitate horietan mugitzen dira eta. Ez da kasu guztietan hori gertatzen, baina bai ematen dizkiegu bi esparru horietan mugitzeko estrategiak eta erremintak. Horrek zer esan

Debagoiendarrek ere bat egin zuten manifestazioan.

**AUDIOFONOAK HOBETU
EGIN DIRA, BAINA
HOBEEKUNTA EZIN DA
ENTZULE BATEKIN
PAREKATU**

KEINU HIZKUNTZAREN BITARTEZ INFORMAZIOA HOBETO ESKURATZEN DUTE PERTSONA GORREK


nahi du? Batetik, ahozko hizkuntza landu behar dugula –keinu hizkuntza ere erabiltzen dugu– eta estrategia komunikatibo ezberdinak eman behar dizkiegula", aipatu du Mercedes Iñarrak.

"Guk aho hizkuntza eta keinu hizkuntza erabiltzen ditugu eskolan, baita komunikazioa errazteko beste sistema batzuk ere. Keinu hizkuntza hezkuntzarako oso baliagarria egiten zaie, baita euren artean komunikatzeko ere. Batez ere, keinu hizkuntzak errazten duena da gerora nagusiagoak direnean ikasketetan ulertzeko eta informazioa heltzeko modua. Aurreiritziz, gorrek izaten duten zailtasun handiena hitz egingo duten edo ez izaten da, baina, gehienetan, dauden aurrerapen teknologikoekin eta logopeden laguntzarekin eta familiaren lanarekin, ahozko hizkuntza funtzionala izaten da erabat. Gorrek duten zailtasuna informazioa jasotzeko orduan izaten da. Entzumenez datorren informazio asko galdu egiten dute edo jasotzen dutena ez da beti zuzena izaten. Hitz asko edo esaldi asko ez dituzte ondo ulertzen; beraz, informazio kalitatean eta kantitatean ezberdintasunak izaten dira. Keinu hizkuntza edukitzeak, horrenbestez, erraztu egiten du goi-mailetan informazio hori erosoago eta bizkorrago eskuratzea. Gainera, gorren komunitatearen artean komunikatzeko errazagoa eta azkarragoa da", azpimarratu du arrasatearrak.

Horren harira, pertsona gorren arteko harremana lantzea "oso garrantzitsua" dela azpimarratu du Aransgiko kideak: "Garrantzia ematen diogun beste zerbitzu bat, gazteen artean, batez ere, gure

Mugikorrek, gorrentzako iraultza txiki bat

Mugikorrekin, eta smartphoneekin, batez ere, asko erraztu diete gorrei egunerokoa, Aransgiko Mercedes Iñarrak nabarmendu duenez: "Adibide bat jartzearen, garai baten lagun batekin gelditzeko telefonoz, beti behar zuten hirugarren pertsona baten laguntza: ama, aita, anai-arrebak... Beraz, elkarrizketa ez zen pribatua eta ez zen zuzena. Sarritan, gurasotik gurasora izaten zen; beraz, pentsa... Lehen, gainera, elkarrekin egoteko, gorren elkarteetan biltzen ziren. Gaur egun, Whatsappekin, batez ere, asko erraztu die hori guztia. SMSak hasi zirenean ere nabaritu zuten alde hori, baina garestia zen. Gaur egun,



SOS Deien aplikazio berria.

bideo-txata ere erabiltzen dute askok, eta keinu hizkuntzarekin komunikatzen dira zuzenean".

Iñarrak dioenez, audio gailuetan baino, informazioa jasotzeko erraztasunean izan dira aurrerapenak: "Lehen, berriak jasotzeko arazoak zituzten. Orain, aukera zabalagoa dute. Euskal gorrak, Zeinu telebista... Informazioa jaso dezakete errazago eta zuzenago".

Aplikazio asko, gainera, gorrendako bereziki prestatuta daude. Adibidez, SOS Deien aplikazio berria. Deirik egin gabe, larrialdiren bat izanez gero, pertsona non dagoen eta zein larrialdi duen jakin dezakete Larrialdi Zerbitzuek.

eskolaren bidez euren arteko harremana erraztea da. Horregatik, udalekuak antolatzen ditugu, aste bukaera batzuetan txangoak, eta baita egun bateko ekintzak eta irteerak ere. Hain zuzen ere, euren nortasuna aurkitzeko eta euren burua komunitate batean finkatzeko, garrantzitsua da euren artean ere kontaktu hori edukitzea. Ezaugarri berak dituen jendearekin elkartzeko aukera hori izatea oso garrantzitsua da; izan ere, kezkak, zaletasunak eta zalantzak partekatzen dituzte euren artean".

Euskal Gorrak

Pertsona Gorren Elkarteak Euskal Federazioa da Euskal Gorrak izenez ere ezagutzen dena. Federazioa Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona gor helduen bost elkarteek osatzen dute: Bizkaiko APSBB (Bilbo eta Bizkaiko Pertsona Gorren Elkartea) eta ASB elkarteak (Basauriko Pertsona Gorren Elkartea); Gipuzkoako GGE (Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkartea) eta Gaianditzen elkarteak (Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartea); eta Arabako Gorra elkarteak.

Euskal Gorra federazioaren bidez, gorrendako hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte; besteak beste, keinu hizkuntzan interpreteak lortzeko zerbitzua, keinu hizkuntza ikasteko ikastaroak eta lan mundura bideratuta dagoen aholkularitza. Baina zerbitzu horien artean bi dira berritzaileak. Bi horiek Zeinu telebista eta Gortek dira, hain zuzen ere.

Euskal Gorra elkarteak, *guztiontzako irisgarria* leloa dute helburu moduan, eta, "asmo horri helduz", webgune eta Internet bidezko telebista sortu dute, *Zeinu.tv*, "nahi duen edonork, ezgaitasunen bat izan edo ez, inolako oztoporik gabe informazio gaurkotua eskuratu dezan". Zeinu telebistan, egunero, Euskal Herriko eta mundu mailako albisteak eskaintzen dituzte keinu hizkuntzan.

Gortek, bestalde, entzumen urritasuna duten pertsonen zuzendutako informazio eta aholkularitza zerbitzua da –Bilboko Deustu auzoan dago egoitza–. Bertan, laguntza eta produktu teknikoaren inguruko informazioa eskaintzeaz gain, beharrezkoak diren probak egiten dituzte. Gainera, erabiltzaileendako produktu teknikoak nola erabiltzen diren irakasten dute eta horiekin trebatzeko maileguak ematen dituzte.

Bi zerbitzu horiez gain, erakundeei eta enpresei aholkularitza eskaintzen diete Euskal Gorra federazioaren bidez, pertsona gorrei irisgarritasuna alor ezberdinetan zelan eskaini diezaieketen jakin dezaten –Internet zerbitzuetan, etxebizitzan, lantokian...–. ■



Gorrendako bereziki egindako Internet bidezko Zeinu telebistako saioa.

**EUSKAL GORRAK
FEDERAZIOAK KEINU
HIZKUNTZAKO
TELEBISTA PROPIOA
SORTU DU**



MARTIN CALVO

Joseba Sarrionandia Zinemaldian

Joseba Sarrionandia jaio zeneko 60. urteurrena denez hainbat ekimen kultural antolatu dira. Tartean, idazle iurretarraren obra oinarri duen Adabaki Ekoizpenak eta Elkar Argitaletxeak abian jarritako *Gure oroitzapenak* proiektu multidiziplinarra, erabateko euskal sortzailerentzako inspirazio iturri izan denaren testigantza zabaldu eta, bide batez, aitortu nahian.

Azken egunotan harian izan dugun Donostiako 66. Zinemaldira ere iritsi da egitamu honen oihartzuna. Izan ere, lelo bereko film luzearen estreinaldia proiektatu zen irailaren 27an Principe zinemetan, Zinemira sailean. Atal hau euskal zinemari eskainitako tarte da eta Donostia Zinemaldiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta

Euskadiko Filmmategiak antolatzen dute. Bertan estreinatzen diren film luzeak Euskal Zinemaren Irizar Saria lortzeko lehiatzen dira. Epaimahaiak, aurtten, Koldo Almandozen *Oreina* filmari egokitzea erabaki du. Merezita, ziur asko.

Gure oroitzapenak-ek ere bazituen aukerak. Sorkuntza-prozesuan hamabi zuzendarik hartu dute parte: Oskar Alegria, Asier Altuna, Mireia Gabilondo, Ane Muñoz, Josu Martinez, Fermin Muguruza, Maider

DOZENAKA SORKUNTZA-LAN IDATZI DITUEN EUSKAL AUTORERIK ITZULIENETAKOA DUGU

Oleaga, Maialen Sarasua eta Itziar Leemans euskaldunak Carlos Quintela kubatarra, Özcan Alper turkiarra eta Eugene Green estatubatuarra. Akaso, euskal idazle eta olerkari garaikide garrantzitsuenetakoa dugu Joseba Sarrionandia eta euskal literatura, antzerkigintza, zinemagintza edo musikagintzari eman izandakoagatik omenaldia egitea pentsatu dute proiektuaren erantzuleek. Elkarlaneko ahalegin txalogarria eta nazioarteko erakusleio ezin hobe, Sarrionandiarren ukitu poetikoa laztandu duen ikus-entzunezko lan dotore eta hunkigarria plazaratzeko, hainbat sari jaso –Euskadi Literatur Saria 2011n– eta dozenaka sorkuntza-lan idatzi dituen euskal autorerik itzulienetakoa ardatz. ■

EZTABAIDA

Ordaindu, arropa probatzeagatik

Gaztela eta Leongo Ogasun kontseilariak proposatu du dendetan arropa probatzeagatik kobratzea; izan ere, batzuek, dendetan probatu eta gero, Interneten erosten ei dute.



ARANTXA MARKULETA
MARKU ERROPA DENDA

"Ondo iruditzen zait, bereziki, kirol eta zapata dendetan eta baita lurrindegietan ere; izan ere, jendeak aurpegi handia du: dendetan probatu eta gero Interneten erosi. Hala ere, zalantza dut neurri horrek zenbateraino lagunduko lukeen arazoa konpontzen".



IDOIA LONBIDE
LONBIDE OINETAKO DENDA

"Legez behartzen ez banaute, aukeran, nik ez nuke zapatak probatzeagatik ezer kobratuko. Erostera datorrenak ere probatu egin beharko ditu, ezta? Dendariontzako kalterako neurria izan daitekeela uste dut. Nola jakin nor datorren eroastera eta nor tranpa egitera?".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUORIZAR



ERREMATEA

JOSEBA GABILONDO
MARKESHarrotasunaren
negozioa

2019ko ekainaren 28an izango da Stonewalleko matxinadaren 50. urteurrena. Urte hauetan guztietan gogoratu dugu egun hori harrotasunez.

Azken urteetan, baina, borroka egun hori sistema kapitalistaren logiketara moldatzen ari dira zenbait agintari eta enpresa pribatu.

Harrotasun eguna negozio bihurtuz.

E28ko memoria balio eta zentzu politikoz hustu eta purpurinaz zipriztindutako diruarekin betez.

LGBT+ kolektiboko zenbait identitate itzalean utziz gainera, E28ko erdigunean gizonezko gay, zuri, klase goi-ertaineko eta bigorexikoak jarritz. Bazterrean geratzen dira transak, emakume* bollarak, bisexualak eta beste zenbait identitate.

Gurean ere E28a merkantilizatu nahi dute. Euskal Herriko eskuina dago nahi honen atzean eta ezkerrek, aldiz, orain arte ez du ezer esan. Bai, berriz, LGBT+ mugimenduak: *Ez dugu onartuko gure eskubide eta askatasuna negozioa egiteko erabiltzea.*

Euskal Herrian saretu eta lanean jarri behar gara, kapitalismo arroxari aurre egin eta kontzientzia politikoa berreskuratzeko. ■

IBON HOZ
GIPUZKOAKO
KONTSUMITZAILEEN BATASUNA

"Ideia horrek ez dauka zentzu handirik. Zalantza dut, gainera, horrelako neurri bat indarrean jartzeko eskumenik baduen erkidego edo estatu batek; Europar Batasunak onartu beharko luke araudia lehenengo. Hemen ez diogu kasurik egin ideia zoro horri".

ENEKO PRAT
'INFLUENCER'

"Nahiago dut Internetez erosi, behar dudaren informazio guztia izaten da: neurria, materiala... Ez dut ohiturarik dendan probatu eta Interneten erosteko gero; askoz merkeagoa topatu ez badut, behintzat. Handi edo txiki gertazera arriskatzen naiz ni".

Ikastola, bai; zergatik?



JOSEBA IÑAKI ETXEZARRETA ARIZMENDI IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Behin, aldiro egiten genuenez, Andoni, Amaia eta hirurok elkartu ginen eta gure ingurumariko lagun askori entzuten geniona gure artera ekarri genuen: zer zentzu du gaur ikastolak?

Izan ere, maiz entzuten den burutazioa edo iritzia zera da: euskara eta euskaraz eskola publikoek eta kristau ikastetxeek irakasten badute, zein da eta zerk justifikatzen du ikastolaren egungo egitekoa? Ez al da ikastolaren funtzio historikoa agortu?

Horrelako elkarriketetan ikastola-zale askok euskalduntasun izaeran eta horren garabidean soilik indarra jartzen dute. Hori da horien argudio nagusia ikastolaren defentsan.

Eta ez da arrazoi makala, ez horixe! Euskal gizarte berrikuntzan ikastolaren ekarpena begi bistakoa baita, nola euskarari balio sozial berria ematean hala identitate euskalduna jorratzean. Baina, ekarpena bikaina izan arren, horretara mugatzea aspektu bakar bati erreparatzea da. Datu falta edo ezjakintasuna adierazten du. Tamalez, euskal

aberkideoi maizegi gertatu ohi zaigunez, Euskal Herrian egin eta egiten ari garenaren gaineko gogoeta eskasa agertzen dugu eta horren ondoriozko dialektika pobrea, hutsa ez esateagatik, adierazten dugu.

Beste hainbat kasutan suertatu ohi zaigunez, gure txokotik kanpo daudenek gure jarduerak argiago behatu dituzte eta horien ezaugarriak hobeto adierazi dizkigute. Esaterako, sarri goraipatzen dudana Marce Masa ikerlariak 2010ean argitaratutako *Ikastolas as a Social Innovation Phenomenon: A Case Study* lanean egindakoa dugu lekuko. Horra hor Masa jaunak berak nola argudiatzen zuen ikastolen balioa:

The Ikastola phenomenon may be considered a paradigmatic example of the concept of social innovation for the following reasons: It arose within civil society; it has promoted a social meaning of Euskara that differs from how it was previously perceived; it constitutes a response on the part of citizens to a demand that had not been satisfied within the prevailing social and political context (teaching the younger generation the Basque

language—and teaching them in Euskara); it has motivations, purposes, and values that are inherently social in nature (specifically, within the educational or socializing context, in its broadest sense); and, finally and most importantly, because of its innovative nature in the sense that it constitutes a challenge to or a reconsideration of the public-private educational dichotomy, and instead proposes a tripartite educational division: public, private, and social/popular.

Alegia, Masa ikerlari jaunak ikastolari seinalatzen dizkion bost ezaugarri nagusiak labur adierazita ondokoak dira: jende artetik sortua; hezkuntza euskaldunaren inbentorea izatea; gizartearen beharrei erantzutea; interakzio sozialean aritzea; eta eredu herritara eraikitzea—ez publikoa, ez pribatua—.

Horrelako ikerketa-datuak eta bestelakoak kontuan izanez, Andonik, Amaiak eta hirurok aztergaia sakonkiago jorratzeari ekin genion. Eta erronka moduan, geure buruei hurrengo ariketa mental hau planteatu genien: hitz gutxitan

esan beharko bagenu, nola azalduko genuke ikastola zer izan den? Eta segidan, ikastola iraganean izan den hori gaur egun ere ba al da? Eta, finean, ikastolak zentzu hori izaten jarraitu behar al du gerora?

Ez zen ariketa makala suertatu, alajaina. Zerrendatu eta partekatu genituen hamaika arrazoitan gako zirenak bereizi behar ziren eta elkarren arteko lotura leiala eginez kontzeptuaren definizio sendoa osatu behar zen.

Eta horrelaxe, hiru hitzetara ekarri genuen: autoeraketa euskalduna hezkuntzan. Hori bera da, gure ustez, ikastola.

Alegia, hezkuntza euskalduna inbentatu, garatu eta arrakastara azken berrogeita hamar urteotan zehar ekarri duten pertsona horiek, ikastola sortzean eta aldiari aldiko egoera anitzetan egokitzean, praxian autogestio hutsa egin dute, autogestio herritar euskalduna, gehien maite dutenek, euren seme-alabak eta ikasleak, hain zuzen ere, hezkuntza hobea izan dezaten, euskalduna eta modernoa.

Ez dute beste inoren esku utzi beren erabaki ahalmena,

beren buruen jabe, subiranoak, izan nahi zuten eta izaten jarraitu nahi dute: hezkuntzaren nolakotasuna –proiektua–, hautu pedagogikoa, material didaktikoa, curriculum, testu liburu inprimatuak eta digitalak, ikus-entzunezkoak, ikerketa, ebaluazioa, irakasle hautaketa, formazioa eta garapena, eraikinak eta arkitektura, ustiapen ekonomikoa, interakzio sozial eta herritarra, lan harremanak, Kilometroak...

Subiranotasun hori bermatzeko eta bideratzeko, hau da, nor izateko eta egiteko, autogestio pertsonala eta kolektiboa konbinatzen duen entitate juridikoa baliatu dute ikastolek. Nagusiki, eredu kooperatiboa.

Mundu osoari opa diogun izatea gure Herrian ikastolok eraikitzen ari gara hezkuntza euskaldunaz eta kooperatiba bakoitzean erabakiz. Ni eta gu hartzen dituen Euskal Herria nik eta guk egiteko modua. Atzo, gaur eta bihar. Horixe baino ez da ikastolaren zentzua.

Beste hautuekiko errespetuan, noski. ■■■

MATERIAL DIDAKTIKOA, CURRICULUMA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, IKERKETA, ERAIKINAK ETA ARKITEKTURA...

"Besteei laguntzeko konpromisoa duen belaunaldikoak dira"

LEOPOLDO CRUZ EHU-KO DOKTOREA

65 urtetik gorako emakume oñatiarrek nortasunean, kulturean, ekonomian eta gizartean Oñatiri zein ekarpen egiten dioten aztertu du Leopoldo Cruz ikerlari mexikarrak. Ondorioztatu du neurtu ezineko ekarpena egiten dutela eta euren nahiak zeintzuk diren esan barik besteendako lan egiten duten emakumeak direla. Testua eta argazkiak: **Oihana Elortza**.

Oñatiri ekarpena egingo dion ikerketa egiteko bideratzen ditu 4.000 euro urtero Oñatiko Udalak, Lege Soziologia Institutuarekin egina duen hitzarmenaren bitartez. Bi ikerlariren artean banatu da azkena: Samara Veltek gazteek gatazka armatua nola ulertzen duten ikertu du eta Leopoldo Cruzek, 65 urte baino gehiago dituzten emakume oñatiarrek gizarteari zein ekarpen egiten dioten.

Ekarpena, orokorrean, edo arlo zehatz batean egindako ekarpena ikertu duzu?

Oñatiko nortasunari, kulturari, gizarteari eta ekonomiari egindako ekarpena aztertu dut.

Eta zein ondorio atera duzu?

Aztertutako arlo guztietan egiten diotela ekarpena. Zalantza barik, gainera. Egia da ekarpen hori zenbakitan edo beste edozein neurgailutan adieraztea edo ematea zaila dela, ezin da, baina ekarpena handia dela bai, hori horrela da.

Nola hasi zenuen ikerketa?

Lehen pausoa eurekin harremanetan jartzea izan zen. Horretarako, herrian dauden bi erretiratu elkarteetara joan nintzen nire asmoa azaltzera, Pake Lekura eta Lagun Lekura. Hara joan eta

neure burua aurkeztu, beka lortu nuela esan eta laguntza horrekin zer ikertu gura nuen azaldu nien. Hitzaldi pare bat egin nituen eta 50 emakume esan zuten ikerketan parte hartzeko gertu zeudela.

Guztiak elkarriketatatu zenituen?

Horretan hasi nintzen, bai. Kuriosoa izen zen. Emakume batekin hitzordua nuen eginda eta beste lagun batekin agertzen zen, nire asmoen berri kontatu ziolako eta parte hartzeko gertu zegoelako. Edo beste lagun baten izena eta telefonoa pasatzen zidaten, hark ere gura zuelako bere ekarpena egin. Askoren testimonioak errepikatu egiten ziren, eta, azkenean, hementxe emakumeren elkarriketak hartu ditut oinarri; ordu eta erdiko elkarriketa egin nion bakoitzari. Egia esan, ez dut inolako arazorik izan, laguntza handia eman didate eta eskertu beharra diet. Euren prestutasuna erabatekoa izan zen. Eskatu zidaten gauza bakarra izan zen elkarriketak anonimoak izatea. Mexiko Hiria moduko hiri handi batean errazago da; izenik ez dut jartzen eta anonimo bihurtzen zara. Edo izena bakarrik jarrita ere nahikoa izaten da batzuetan. Baina herri txikietan zailagoa izaten da anonimotasun



Leopoldo Cruz mexikarra, ikerketaren aurkezpena egin aurretik, Oñatiko Lege Soziologia Institutuan. O.E.

hori gordetzea, eta elkarriketatuaren datu guztiak gorde, ezkutatu, behar dira: izena, abizena, lanbidea, helbidea... Anonimotasuna gordeko nuela agindu nien, eta horrela izan da. Txostena egin eta lana aurkeztu ondoren, apunteak hartutako orriak apurtu eta borratu egin ditut audio guztiak.

65 urtetik gorako emakumeak ziren guztiak. Beste zein ezaugarri betetzen zuten? Zein zen elkarriketatuaren profila?

Adina eta Oñati. Baldintza hori betetzen zuten guztiak, baina hortik aurrerako ezaugarriak, bakoitzak bereak zituen. Hau da, galderak erantzun dituzten emakumeen artean zeuden, esaterako: ezkonduak eta ezkongabeak, alargunak eta dibortziatuak, seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak, Oñatin jaio eta bertan bizi direnak eta kanpotik etorri direnak Oñatira bizi izatera. Interesgarriena da ez ditugula saikatu euskaldunak diren edo ez, edo amonatzak diren edo ez.

Horregatik diozu kolektibo heterogeneoa dela?

Bai. Kanpotik ikusita, denak dira euskaldunak, denak emakumeak eta denak 65 urtetik gorakoak, baina bakoitzak bere historia du, eta, batzen dituen gauzak dituzten arren, badituzte gauza ezberdinak ere eta gizarte moduan euren beharrei erantzun behar diegula uste dut, dena erakundeei eskatu beharrean. Yoga, dantza, margotu edo ibili egiten dira, batetik, eta, bestetik, interes ezberdinak dituzte; batzuek, adibidez, ikasteko gogoia dute.

Lan handia egiten duten taldeak dira?

Bai. Etengabe ari dira lanean. Baina, aldi berean, kirol eta kultura jardueretan ere hartzen dute parte, esaterako. Egia esan, ez dakit zenbat ordu dituen euren egunak. Gizonen egunak ez ditu horrenbeste ordu. Etxeko lanetan laguntzen dugun arren, egunen baten ezer ez egitea erabakitzen badugu, ba, ez dugu ezer egiten, eta emakumeei gehiago kostatzen zaie gauzak egin gabe uztea.

Euren bizimodua, jatorria, lana, zaletasunak... kontatu dizkizute. Zer erantzun dizute zein ekarpen egin duten galdetzean?

Hori izan da egindako elkarriketetan egin dieran lehen galdera: "Zein ekarpen egiten diozu egun Oñatiri?". Eta denek, guztiak, erantzun bera eman didate: "Ba, gauza handirik ez, nik ez dut aparteko ezer egiten". Eta eurekin berba egiten, grabazioan zehar, konturatzen zara hori ez dela horrela. Oso emakume aktiboak dira, lan handia

egiten dute, eta, beraz, euren ekarpena handia da. Adibidez, askok lau belaunalditako senideen zaintzaileak izan dira: gurasoak, bikotea, seme-alabak eta ilobak. Gainera, herriko ekintza askotan parte hartzen dute: elizako lanetan laguntzen, kultur ekintzetan parte hartzen, yoga egiten dute, mendira joaten dira, gaixoak ospitalera eramaten laguntzen dute, elikadura bankuan boluntarioak dira... Eta konturatzen zara oso belaunaldi indartsua dela. Erretiroa hartu dute, baina ez dira geldia egotekoak. Sindikatu klandestinoak sortu zituen belaunaldikoak dira, frankismoaren aurka borrokatu zirenak eta behin baino gehiagotan eskubideen alde kalera atera zirenak. Eta egun ere oraindik egiten dute hori. Adibide argiena da pentsio duinak eskatzeko astelehenero Foruen plazan egiten dituzten elkarretaratzeak.

Pentsio duinak eskatzeko egiten dituzten elkarretaratzeetan egon zara?

Bai. Oso puntu interesgarria da hori. Elkarretaratze horietan parte hartzen dutenekin egon naiz eta guztiak esan didate ez direla kalera ateratzen, astero, euren pentsioa handiagoa edo hobeia izateko eskatzeko. Eurek baino okerrago daudenen egoera aldatzeko, hobetzeko, ateratzen direla diote, edo seme-alaben pentsioak ziurtatzeko, adibidez. Egiten duten lan guztia besteendako egiten dute. Pentsa, hitz egindako emakumeak 9 eta 15 urte artean hasi ziren lanean.

Euren gaztaroa ez zen izan egungo gazteena modukoa.

Ez zuten gaztarorik izan. Etxekoei laguntzeko dirua lortu gura zuten eta lanean hasten ziren. Diru hori euren anai-arrebak, anaiak kasu askotan, eskolara joan zitezen izaten zen. Anaiak eskolara joateko euren ikasketak utzi eta lanean hasi ziren emakumeak dira. Hori bizi izan zuten umetan eta oraindik konpromiso horrekin jarraitzen dute.

Eta nola deskribatzen dute eurek euren gaztaroa?

Inork ez du haserre kontatu sasoi hori, inor ez da kexatu hori horrela gertatu zelako. "Horrela zelako" egin zuten lan hori eta horrela bizi dute. Egun ere besteei laguntzeko konpromisoa dute.

Zenbat zati ditu zuk egindako lanak?

Bost kapitulutan banatu dut proiektua: sarrera eta ondorioak dira kapitulu bi. Beste gai bat da emakumeei eta interseksionalitateari buruzko ikerketa teorikoa. Euskadin sektore honi laguntzeko instituzioek zer egiten duten ere aztertu dut. Adibidez, Emakunde eta Lagunkoi zerbitzuak aurkitu ditut hor eta euren lana zein



Cruzen ikerketa egiteko parte hartu duten Oñatiko emakume asko izan ziren aurkezpenean.

"OSO BELAUNALDI INDARTSUA DA EURENA; ERRETIROA HARTU DUTE, BAINA EZ DIRA GELDI EGOTEKOAK"

"LEHEN BEZALA, KALERA ATERATZEN DIRA EGUN ERE ALDARRIKAPENAK EGITERA"

"OÑATIAURREN %25 ADINEKOAK DIRA EGUN; HAMAR URTE BARRU %30ERA IRITSIKO DA KOPURUA"

den jaso dut. Beste kapitulu batean, populazioaren piramidearen bilakaera aztertu dut; eta atal horretan zenbakiak ere jaso ditut. Gero eta adineko gehiago dago egungo gizartean. Esaterako, egun, Oñatin, biztanleen %25 adinekoak dira eta horietatik %51 emakumeak dira. Baina, Eustaten arabera, hamar urte barru, %30era helduko da Oñatiko nagusien kopurua. Igoera handia da hain denbora laburrean. Gainera, lehen, 65 urtetik 80ra bitartekoak ziren adinekoak, baina egun, 65etik 100 urte bitartekoak sartzen dira nagusien taldean.

Egiten dituzten ekitaldi publikoak ere izan dituzu kontuan.

Azpiatal batean jaso ditut horiek, bai. Hor sartzen dira, adibidez, lehen aipatutako astelehenetako elkarretaratzeak, Martxoaren 8ko ekitaldietan izan zuten parte-hartzea eta baita Olakua auzoan adineko emakumeak omentzeko Lagun Leku elkarteko erretiratuek egin zuten ekitaldia; euren aurreko belaunaldiko emakumeak omendu gura izan zituzten, eurek izan dituzten eskubideak lortzeko egin zuten lanagatik. Eta kasu honetan berriz ikusten dugu gauzak, ekitaldiak, egiten dituztela beti besteak omentzeko. Eurak protagonistak diren ekitaldirik ez dute egiten, beti besteei begira egindakoak antolatzen dituzte.

Zein da, esaterako, Oñatiko nortasunari egiten dioten ekarpena?

Hitz egun dudan emakume batzuk ez ziren Oñatin jaio eta ez zekiten euskaraz hona etorri zirenean. Seme-alabak izan zituztenean, baina, argi zuten haiek euskara ikasi behar zutela eta euskaraz bizi behar zutela. Beste adibide bat da komertzio



Cruz bere ikerketaren aurkezpena egiten.

**"BESOAK ZABALIK HARTZEN DITUZTE
OÑATIRA ETORRI ETA HERRIAN
SARTU GURA DUTENAK"**

**"BAKARDADEARI AURRE EGITEN
LAGUNTZEKO NEURRIAK ESKATZEN
DIZKIETE ERAKUNDEEI"**

**"GAZTEEI ESKATZEN DIETE
SOLIDARIOAK IZATEKO EUREN
ARTEAN ESKUBIDEAK LORTZEKO"**

txikien inguruan duten iritzia. Euren seme-alabek Internet bidez erosten dutela aitortu dute batzuek, edo beste herri batzuetara joaten direla. Euren Oñatin zergatik erosten duten galdetzean, erantzuna da herria bizirik ikusi gura dutela, denda barik herri tristea izango litzatekeelako.

Zeintzuk dira lan hau egin ondoren atera dituzun ondorioak?

Egia esan, lan hau egiteak ematen zidan beldurretako bat zen ni gizona izatea. Baina orain ikusten dut feminismoa gizonok ere egin dezakegula eta egin behar dugula. Hori da nik pertsonalki atera dudana ondorioetako bat. Egindako lanetik, berriaz, ikusi dut gizarte hobeaz lortzeko lan egin duten emakumeak direla.

Euskaldunak eta oñatiarrak ere badira, baina ez zentzu oso itxian. Herria eta herritarrak maite dituzte, baina besoak zabalik hartzen dute kanpotik etorri eta herriko parte izan gura duen edonor. Eurak ere gertu daude kanpotik datozenek egin ditzaketan ekitaldietan parte hartzeko. Bestalde, arreta handia eskatzen duen emakume taldea da; euren ez dute esaten zer gura duten, zer behar duten. Laguntzeko eta bizikaltate hobeaz izateko zer behar duten besteak aztertu beharko dugu.

Beraiek euren esperientzia kontatu ostean egin dituzten eskaerak bi izan ei dira. Euren dako bat eta gazteendako beste bat.

Hala da. Berdineraz bueltatzen gara, orain ere besteak hartzen dituzten kontuan. Hau da egin nien galdera: "Zer eskatzen diozu Oñatiko Udalarari edo herriari?". Egia esan, bi eskaera nabarmendu zituzten guztiek: batetik, bakardadearen aurkako neurriak eskatu dizkiote Udalarari. Lagun Leku bezalako elkarteak ere horrela sortu ziren, bakarrik zeuden adinekoei laguntzeko, bakarrik dauden ordu kopurua arintzeko. Bigarren eskaera gazteei zuzendutakoa da, bai. Solidarioak izateko eskatzen diete. Baina ez nagusiekiko solidarioak, baizik eta euren arazoan aurrean elkartasuna adierazi eta emateko elkarri. Pentsioei lotuta esateko, euren, gazteen, pentsioen alde egiteko eskatzen diete; elkartasuna baita euren lan eskubideen alde borroka egiteko ere, adibidez.

Bukatzeke, uste duzu zahartzaroak aktiboa izan behar duela?

Uste dut izan behar duela bakoitzak izatea gura duen modukoa. Norbaitek uste badu aktibitate bat egin behar duela, ba, aurrera. Baina telebista ikusten edo atseden hartzen egon gura duena ere errespetatu egin behar da. ■■■

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko zozketa



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Berri Txarrak

Berri Txarrak taldearen eskutik, Infrasoinuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Berri Txarrak



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendagaioen LORO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketak honen helburu bakarra da indarrendagaioen sustapena gestionala.

Eskubidea izango duzu datuetan sartzeke, haiek zuzentzeko edo ezarritzeko, helbide honetara idatzirik: kluba@goiena.eus



www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz
2018 (urritik aurrera): 31€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba

Hautsak harrotuz

ALERGIAK



ANE UGARTE OTORRINOLARINGOLOGOA
ARGAZKIA: 'BUENAVIBRA.ES'

Udazkena heldu eta eguzkitako betaurrekoak zein krema mukizapiekkin ordezkatzan dituzu? Irailetik apirilera hotzeriaren menpe egoten den horietakoa? Mukiak eta sudurreko kongestioa, doministikuak, malko-isurtzea, begietako azkura, nekea... erraz nahas daitezke hotzeria arruntarekin. Hala ere, kontuan izan behar da hotzeriaren sintomek ez dutela 8-10 egun baino gehiago irauten eta diagnostikatu gabeko alergia kasu baten aurrean egon gaitezkeela. Hautsaren akaroekiko garatzen den alergia baten aurrean, hain zuzen ere.

Akaroak araknidoen familiako *zomorro* mikroskopikoak dira, hautsaren akaroa (*Dermatophagoides pteronyssinus*) izendatzen dena, gizakien larruazalaren zelula hilek sortutako hautsetan bizi da eta hori bera da asma eta alergia ezberdinen erantzulea.

%70eko hezetasuna eta 21 gradu inguruko tenperatura dira akaroak hazteko baldintza egokienak; kostatik gertu dauden eremuak eta uharteetako biztanleak izaten dira kaltetuenak. Gure ingurunean udazkenean eta udaberrian sintomak agertu edo areagotu egiten dira, akaroen hazkunderako baldintza idealak izaten direnean.

Aurrez deskribatutako sintoma horiek sumatuz gero, familia medikuarengana edo alergologoarengana zuzentzea da hoberena; azaleko-proba edo odol-analisi batekin erraz konfirmatu daiteke susmoa.

Nola egin aurre?

Gaur egun, bi estrategia mota erabiltzen dira alergia kasuei aurre egiteko. Alde batetik, desentsibilizazio prozesua egin daiteke; txertaketa bidezko tratamendu baten bidez egiten da. 2-3 urte irauten du eta, kasu askotan, emaitza eraginkorra izaten da. Sintomak guztiz

kontrolatzea ezinezkoa denean, kortisona duten sudurreko esprai desberdinak eta antihistaminikoak baliagarriak izan daitezke. Tratamendu mediko horrek espezialistarekin adostutakoa eta pertsonalizatua izan behar du.

Bestetik, ezinbestekoa da alergenorekin kontaktua saihestea sintomak kontrolatu nahi baditugu. Logela izaten da lekurik *onena* etxeko hautsetan hazten diren akaroentzat. Koltxoia, maindireak eta burukoak habitat egokiak izaten dira; izan ere, larruazal hondarrez beteta egoteaz gain, leku ilun eta beroak izaten dira.

Akaroek eragindako alergia horren diagnostikoa egitea garrantzi handikoa da; izan ere, tratamendurik ezak eta etengabeko esposizioak arnas bideko konplikazioak ekar ditzakete. Gainera, ez dugu ahaztu behar alergiaren sintomak arinak badira ere, bizi-kalitatean eragina dutela, loa eta deskantsua eragozten dute. ■■■



Zenbait gomendio

- Aireztatu logela egunero eta eguzki izpiak sartzen utzi; ohea egin gabe utzi behar da ordu batzuetan, bertan dauden akaroak desagertu daitezzen.
- Erabili akaroen kontrako zorroak koltxoian eta burukoan.
- Oheko arropa asteen behin garbitu behar da ur beroarekin –60 gradu inguruko tenperatura erabili–.
- Etxea minimalista eran apainduta izatea gomendagarria da, hautsa pilatzen duten altzari, liburu eta apaingarri gabe. Horrela, etxea garbitzea ere errazagoa izango da.
- Alfonbrak eta gortinak ere hautsa metatzen duten guneak dira eta horiek arinak eta erraz garbitzen diren materialez eginikoak izatea garrantzitsua da.
- Hautsa garbitzeko orduan arreta berezia jarri txoko eta altzarien atzean. Lan horretarako, xurgagailua izango da gure *aliaturik* onena – erratzak hautsa harrotzen du–; HEPA motako iragazkiak dituztenak dira onenak.
- Alergia duten haurrek ez lituzkete felpazko jostailuak erabili behar; kutunen bat izanez gero, ezinbestekoa da askotan garbitzea.

LOGELA IZATEN DA LEKURIK 'ONENA' ETXEKO HAUTSETAN HAZTEN DIREN AKAROENDAKO

"Lehenengo bosten artean ikusten nuen neure burua"

KOLDO LAMIKIZ TXIRRINDULARIA

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIA: E.A.

Gernika alboan dagoen Arteaga herrian jaioa da 70 urte betetzear den Koldo Lamikiz (1948), gaztetan ikasketek Arrasatera ekarri zutena, eta ondoren Bergaran ezkondua. Geldi egoten ez dakien horietarikoa da Lamikiz. UCik antolatzen duen afizionatuen Munduko Txapelketan zortzigarren postua eskuratu berri du 65-70 urte bitartekoaren kategorian, Varesen (Italia).

Ze lasterketa da hau?

UCIk antolatzen du, eta profesional eta kontinental mailetan ari ez diren 19 urtetik gorako txirrindulari afizionatuei zuzenduta dago. Urtero egiten da, eta, parte hartu ahal izateko, aurrez sailkatu behar duzu, beste proba batzuetan.

Nolako zen ibilbidea?

Irten eta segidan mendate bat zegoen. 4,5 kilometro zituen, baina gogorra zen. Gero, beste mendate batzuk ere igo genituen. Ibilbide guztia laku artean kokatuta zegoen; Varese, Lugano eta Como lakuak, esaterako. Paraje politak dira.

Txirrindulari askok hartzen dute parte proba horretan?

Egia esan, bai, eta asko ibilitako jendea, gainera, maila onekoa. Batez besteko denborak ikusi besterik ez dago. Kategoria ezberdinetan banatzen dute proba, bost urteko tarteekin, baina batzuk batera irteten dira. Gurean, adibidez, hiru kategoriatako txirrindulariak ateratzen gara batera: 60-65; 65-70; eta 70+. Hiru kategorია horietan 300 bat ziklista izango ginen. Proba osoan, 3.000 ziklista inguru, eta mundu

osotik joandako jendea, gainera: Txinatik, Zeelandatik, Berritik, Australiatik, Kanadatik, Japoniatik, Mexikotik, Argentinatik...

Zortzigarren sailkatu zinen zeure kategorian. Gustura? Ala emaitza hobea espero zenuen?

Neure burua lehenengo bosten artean ikusten nuen. Hasieran, zortzi minututik behin, 300 laguneko multzo bat irteten zen. Aurreko multzoan ateratzeko aukera nuen, berez, baina ez nekien ezer, eta ez nuen nire izena entzun. Atzetik atera nintzen, eta aurrekoak ezin izan nituen harrapatu. Hala ere, lasterketa txukuna egin nuen. Lehenengo mendatea maila onean igo nuen, eta gero ere erritmo onean joan nintzen. Hala ere, atzetik aurrerako bidea egiten joan nintzen lasterketa osoan, eta ez nekien zenbat txirrindulari nituen aurretik.

Non lortu zenuen lasterketa horretarako txartela?

Galizian, Costa da Morte inguruan egin genuen proba, eta Ezaroko miradorean amaitzen zen. Ez da oso luzea, baina oso malda gogorrak ditu. Nire kategorian lehenengo egin nuen, eta horri esker izan dut Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera.

Bai Galiziako proban, baita Italiakoan ere. Bietan erorikoek baldintzatuta lehiatu zara, ezta?

Hala da. Ez dut zorterik eduki. Bi eroriko izan nituen, lasterketa bakoitza baino lehen. Galiziako lasterketa baino hiru aste lehenago, erori egin nintzen entrenatzen, eta azken aste haietan ezin izan nintzen behar bezala entrenatu. Hala ere, irabaztea lortu nuen. Garaipen horrek motibatu egin ninduen, eta, Munduko



Lamikiz, bizikletarekin, Bergaran.

Txapelketarako entrenatzen ari nintzela, kasualitatez, berriro, proba baino hiru aste lehenago, beste eroriko bat izan nuen, Denian (Alacant). Gorputza minduta eduki nuen, eta orduan ere ezin izan nintzen ganoraz entrenatu. Erori ez izan banintz eta irteeran aurean egon izan banintz, lehen bosten artean egongo nintzela iruditzen zait.

Betidanik ibili izan zara bizikletan?
1965ean, 17 urterekin, Gernikesa taldean aritu nintzen, gazte mailan. Maila ona eman

**"2019AN POLONIAN
JOKATUKO DEN
MUNDUKO TXAPELKETA
AHALIK ETA ONDOEN
PRESTATU GURA DUT"**

nuen, eta Bilboko talde batekin hitzartuta neukan hurrengo urtean jarraitzeko. Hala ere, amak esan zidan ikasi egin behar nuela, eta bizikleta utzi. Beraz, Arrasatera etorri nintzen ikastera, eta bizikletan ibiltzeari utzi nion. 28 urterekin, ezkondu nintzen urtean, berriro heldu nion bizikletari, eta gaur arte.

Baduzu bereziki gogoratzen duzun lasterketarik, garaipenik...?

1984an, 36 urterekin, Espainiako txapelketa irabazi nuen lehenengoz, Valentzian. Harrezkero, beste hiru aldiz ere izan naiz txapeldun eta bigarren beste bi aldiz egin dut. Garai haietako oroitzapen oso onak ditut, bereziki.

Datorren urtean Polonian, Poznan hirian, jokatuko da Munduko Txapelketa. Han izango zara?

Hori da asmoa. Proba hori ahalik eta ondoen prestatzen

saiautuko naiz. Gainera, 70+ kategorian izango naiz datorren urtean, eta emaitza ona lortzeko moduan izango naizela uste dut. Ea erorikorik ez dudan eta behar moduan prestatzen naizen.

Arraunean ere aritzen zara.

Hala da. Laugarren eta bosgarren ornoak izorratuta nituela esan zidan medikuak, eta igeri egitea edo arrauna egitea gomendatu zidan, duela hamar bat urte. Arrauna probatzen hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Donostian, Bentaberri kiroldegian, proba bat egoten da urtean behin, Espainiako errekorretarako balio duena, eta baditut errekor batzuk.

2.000 metroko distantzia da mundu mailan estandar moduan ezarrita dagoena, eta ni hor aritzen naiz, gehienbat. 2010ean, 60-69 urte arteko kategorian, 07.19.00 denbora ezarri nuen eta 2012an 07.11.50 egin nuen. Orain, beste errekor bat egiteko prestatzen ari naiz, 70-79 urte arteko kategoriako. Walter Wilson izeneko batek dauka markarik onena, 07:48:50, baina uste dut marka hori ontzeko gai izango naizela. Azaroan izango da proba hori, eta hasi naiz prestatzen dagoeneko.

Noiz arte jarraituko duzu bizikletan eta arraunean?

Orain, 70 urterekin, gorputza ondo mantentzea da helburua, eta, esfortzu batzuk egin arren, bihotza zaintzea ere komeni zait. Lehen, serie asko egiten nituen, baina kardiologoak esan zidan nire adinarekin ez dela ona serieak egitea. Beraz, beste erritmo baten ari naiz orain, modu konstanteagoan. Baina gorputzak baimentzen didan bitartean jarraituko dut. ■

Autoritatea irabazi egiten da

UMEEN HEZIKETA

'GURASO.EUS' WEBGUNETIK

ARGAZKIA: 'FACTINATE.COM'

Autoritateak beharko luke haurrentzat erreferentziazko pertsona bilakatzea, eta prozesua haur hori nerabazarora iritsi baino askoz lehenago hasten da. Carles Capdevila komunikatzaile ospetsuari entzundakoa da: "Zenbait gurasok dozena bat urteko siesta botatzen dute; haurrek gutxieneko autonomia bat lortzen duten unetik nerabezaroan sartzen direnera arte".

Eta nerabezaroa dator... ohikoak dituen fenomenoekin: hautazko gorrieria, errebeldia neurrigabea, desobedientzia, gaizki ulertutako independentzia grina... Orduan hasten dira gurasoen aienek. Zenbait adituk diote akatsa dela fenomeno horiek guztiak nerabezaroari egoztea. Autoritate arazo bat ere ikusten dute horretan.

Autoritatea irabazi egiten da
Autoritatea kontzeptu oso konplexua da. Mutur batera joz gero, autoritarismoan

erortzeko arriskua dugu, eta, beste muturrera eginez gero, permisibitatean. Ulertu behar dugu autoritatea haurraren erreferentziazko pertsona bilakatzeko prozesu moduan. "Autoritatea irabazi egiten da", dio Nerea Mendizabal psikopedagogoak. "Autoritate izaera guraso edo irakasle izateak soilik ematen du? Ala heldu bakoitzak bere jokaeraren eta egunerokoan dituen jarreraren bidez irabazi behar du?". Mendizabalek uste du autoritatea haurrak onartu eta eman behar diola helduari. "Helduontzat ere nor da autoritatea? Sinesgarritasuna ematen digun norbait, konfiantza ematen diguna, ulertzen eta errespetatzen gaituena... Hau da, baldintza batzuk betetzen ditu nik autoritatetzat har dezadan. Beraz, haurrek helduoi autoritatea onar

**AUTORITATEA ULERTU
BEHAR DA UMEAREN
ERREFERENTZIAZKO
PERTSONA BIHURTZEKO
PROZESU MODUAN**

diezaguten aipatu ditudan elementu horiek zainduz gero, askoz ere errazagoa izango da.

Askoz ere errazago hori garrantzitsua izango da umea nerabazarora heldutakoan. Autoritatea beste modu honetan ulertuta, nagusitasuna da, eraginkortasuna... Heztea bada gidatzea, bidelagun izatea eta garatzen laguntzea, askoz ere errazagoa egingo zaigu hezigiak gure posizioa ulertzen eta baloratzen badu.

Autoritatearekin lotutako arazoak agertzen direnean gertatu ohi dena da haurtzarotik izan direla. Haurra txikia denean, dena da errazagoa. Guztiaren gainetik, txikiak direnean umeek gure beharra dute, mendekoagoak dira. Adinez txikiagoak direnean eraginkorrak izan daitezke gure helburuak lortzeko eroskeria, xantaia edo autoritarismoa. Nerabezaroan, ordea, seme-alabak autonomoagoak dira, independentzia handiagoa eskatzen dute eta ezin dugu besterik gabe *agindu*. Orduan agertzen da arazoa, baina aurretik garatu da. ■



Autoritatea 'irabazteko' neurriak

- **Maitasuna:** seme-alabak maite ditugu eta horrek laguntzen digu haiek hezten. Saiatu guraso erantzukizunak ez delegatzen.
- **Elkartasuna:** garrantzitsua da gurasoek irizpide antzerakoak lehenestea. Ez dugu zertan beti denean ados egon, baina bai koherentziaz jokatzeari.
- **Denbora:** eskaini denbora seme-alabei. Nerabezaroan ere bai. Har dezakegu denbora jardura fisikoa praktikatzeko, irteerak egiteko... Eskaini denbora txikitatik, elkarrekin gauza atseginak egiteko denbora.
- **Harrotasuna:** izan konfiantza seme-alabengan

eta erakutsi harro zaudela. Jarrera baikorrek eta aukera handiko pertsonak direla erakutsiz hobetzen lagunduko die. Etengabe zuzendu beharrean, egokiagoa litzateke erronka berriak proposatzea.

- **Umorea:** garrantzitsua da seme-alabekin barre egitea. Barre geure buruaz, inguruan ditugun gauzez... Autoritatea, ondo ulertua, umorez ere aplikatu daiteke.
- **Irudimena:** aukera berriak eta, batez ere, irtenbideak topatzeko garrantzitsua da irudimena erabiltzea. Ikuspuntua aldatzea edo arauak ezarritako bidetik apur bat irteera mesedegarri izan daiteke kasu askotan.

- **Konfiantza:** ez jarri seme-alabak zalantzan, ezta zeure burua ere. Bultzatu gura dugun autoritate eredu berria konfiantzatik eraikitzen da. Ez eman amore.
- **Aurreikusteko gaitasuna:** etor daitekeena aurrez ikustea beti da lagungarria erantzun egokia prestatzeko. Sor daitezkeen gatazkei aurre hartzeak abantaila dakar. Bestetik, formazioa jasotzea edo hausnarketarako gakoak jasotzea lagungarri da.
- **Gozatu:** gurasotasuna poztasunetik bizi. Nerabezaroa bizitzeko etapa bat gehiago da eta gure eginkizuna da seme-alabei mailak igotzen laguntzea.

Zelai Zabal, ospakizunetan espezialista



ALBERTO ELORZA SUKALDEBURUA
ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Arantzazu auzoko Zelai Zabal jatetxean 119 urteko esperientzia daukagu. Simon Elorza eta Maria Telleria aitona-amonek sortu zuten negozioa, eta, hasieran, Arantzazura etortzen ziren erromesak eta auzotarrak izaten ziren gurean jaten. Gerora, jatetxe itxura handiagoa eman diogu. Baina, betidanik, herriko eta probintziako profesionalak izan ditugu hemen lanean,

egunez egun, kalitate bikaina eskainiz.

Ospakizunetarako proposa

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, lagunarteko edo familiarteko bazkariak eta afariak... askotariko ospakizunak egiteko leku aproposa duzu Zelai Zabal.

Eskaintzari dagokionez, karta daukagu eta menuak bezeroen eskarietara moldatzen ditugu beti. Besteak beste, plater hauek izaten dute arrakasta: etxean egindako foie-tarrina; aitona-

amonen errezetarekin egiten ditugun etxeko kroketatxoak; abakando-entsalada; txangurru ohedun legatza; eta txahal-masaila; postreetan, txokolatezko danborra edota euskal pastela Idiazabalgo gaztaren izozkiarekin.

Etxera eramateko zerbitzua

Bezeroen etxeetara eta elkarteetara eramateko prestatutako janaria ere eskaintzen dugu. Erreserbak egiteko, deitu telefono zenbaki honetara: 943 78 13 06. ■■■

Zelai Zabal jatetxea

- **Helbidea:**
Arantzazu auzoa 38, Oñati.
- **Telefonoa:** 943 78 13 06.
- **Posta elektronikoa:**
restaurante@zelaizabal.com.



ZELAI ZABAL JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Ziza horien eta zizalaxoen salteatua

Osagaiak (4 lagunendako)

- Ziza horiak, kilo erdi
- Tipula, 1
- Zizalaxo zurituen 16 buztan
- Gatza
- Piperbeltz beltza

Prestaketa

- **1.** Eskuekin birrindu ziza horiak eta erregosi su baxuan olio apur batekin, bigundu arte.
- **2.** Bestetik, tipula zatitu juliana erara eta su oso baxuan, gatzarekin eta piperbeltz beltzarekin, karamelizatu, eta gorde.
- **3.** Zizak bigunagoak daudenean, krema bat egin tipula eta salda apur batekin elkartuta. Xehatu, eta horrela, plateraren oinarria lortuko da.
- **4.** Zizalaxoen buztanak zuritu. Bestela, ganbak edo langostinoak erabili, zatituta.
- **5.** Platerera ateratzeko, jarri oinarrian urtsutasuna edo jugosotasuna emateko egindako krema. Zartagin batean egin tipula eta mariskoa, eta, azkenik, gehitu zizak. Gatz apur bat bota. Kremaren gainean jarri hori, eta, apaintzeko, perrexil edo espinaka frijitu hosto bat jarri.

Zailtasuna: • • • • •

Aurreko zozketako irabazlea: Maitane Landa Aperrabai (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Atera zure alde basatia!

ANIMAL PRINT

ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: INSTAGRAM

Era guztietako animalien estanpatuak ikus daitezke aurtengo udazkenean. Aurtengo berezitasuna da jantzia bera indartu egin dela eta osagarri soil izatetik *total print* izatera pasa dela. Hau da, soinekoak, jakak, gonak... era guztietako jantzietan aurki daiteke estanpatua. Eta ez hori bakarrik, estanpatu horiek lehoinabar hutsetik harago doaz: aurtengo joera sugearen estanpatua da. Horrez gain, jirafa, behia... bestelakoak ere ikus daitezke.

Ausarta eta nortasun handikoa

Presentzia handiagoa duten jantzietan animalien estanpatuak eramateko, ausarta eta nortasun handikoa izan behar da: "Uste dut *total print*-a eramateko *look*-a oso ondo egituratuta egon behar dela eta oso ondo jakin behar duzula hori eramaten. Horrez gain, erabiltzen dituzun estanpatuak berdinak izan behar dira: hau da, ezin da izan estanpatu batek kolore bat izatea eta beste batek beste bat", azaldu du Bergarako Amua jantzi dendako Maitane Azkaratek.

Azkarateren aholkua da prenda bati ematea garrantzia eta beste *look* guztia "jantzi neutroekin" konpasatzea: beltzarekin, zuriarekin eta grisarekin, adibidez.



Sugearen estanpatua duen *total print*-a, abrigo beltzarekin osatuta.

Ehunaren garrantzia

Egunero erabiltzeko moduko jantziak direla dio Azkaratek: "Jantziaren arabera, beti. Nire ustez, estanpatua duen jantziaren ehuna kalitatezkoa izatea garrantzizkoa da; hau da, sugearen *print*-a izanez gero, ehuna ere garrantzitsua izan behar da. Horrela izan ezean, baldarraren eta egokiaren arteko muga horretan egon zaitezke".

Ekitaldi batera joateko edo gauez irteteko ere egokiak dira. "Osagarriekin jokatu behar da: ez daitezela izan garrantzi handiko osagarriak, ez lentejuetak, ezta dirdirak dituztenak ere", azaldu du Azkaratek.

Osagarriak, samurrago!

Oinetakoetan, gerrikoetan, zapietan... animalien estanpatuak eramatea samurragoa dela dio Azkaratek: "Gurean oso zaila izaten da joera berriak kalean ikustea. Zerbait janzteko, asko ikusi behar dugu, eta horrek esan gura du horiek janztera ausartzen garenerako modaz pasa direla", nabarmendu du Azkaratek. Hori horrela, jantzi osoetan animalien estanpatuak eramatea asko kostako dela dio. Indar handia duten jantziak izaten dira; horregatik, garrantzitsua da argi izatea nola jantzi behar diren eta *look*-a osatzeko jantzi neutroak erabiltzea. ■■■



Detailea, poltsan.



Lehoinabarraren estanpatua.



Sugearen estanpatua duen soinekoa.

Zapore gozoko txapela

GORKA IDIGORAS RALLYSPRINT PILOTUA

XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: IMANOL BELOKI

Lan gogorak fruituak ematen ditu sarri. Eta horixe bera gertatu zaio Gorka Idigoras auto pilotu eskoriatzarrari. 18 urte zituenean murgildu zen auto txapelketetan eta 28 urterekin Euskadiko rallysprint txapeldun bilakatu da Klase 2 mailan.

Urte oparoa

Rallysprint denboraldiak sei proba izan ditu aurten, eta horietatik lautan Idigoras izan da bere kategoriako garaile. "Pozik nago emaitzekin. Bosgarren proba amaituta, matematikoki bermatuta neukan lehen postua poltsikoan. Hala, azken proban, Aramaion, presiorik gabe irten nintzen, eta, gozatu ederra hartzeaz gain, beste lehen postu bat lortu nuen".

Emaitza borobil horiek lortzeko, aitortu du bere autoa kategoriako onenen artean dagoela. "Nire autoa kategoriako gorenean aritzeko modukoa da, baina homologazio kontu bategatik bigarren kategorian lehiatzen naiz. Arrazoi horregatik, bigarren kategoriako auto hoberenetako bat da nirea. Besteak, orokorrean, zertxobait txikiagoak dira, baina, hala ere, badaude beste auto lehiakor batzuk gure mailan.

Idigorasek 2.000 zentimetro kubikoko Renault Clio Sport bat

gidatzen du. "Motorrak baditu bere gauzatxoak, eta nahiko abiadura-kaxa dezatea dauka".

10 urteko ibilbidea

Idigoras ez da berria mundu honetan, 10 urte baitaramatza auto txapelketetan parte hartzen. "18 urterekin hasi nintzen, eslalom modalitatean, nire lagun baten autoarekin. Ostean, auto bat eskuratu nuen, eta horrekin hasi nintzen, igoeretan, rallyetan eta rallysprintetan parte hartzen. Kate geldiezin bat da autoen mundua".

Zaletasun garestia


Gauza jakina da auto gidari izatea zaletasun garestia dela. Baina Idigorasek tailer batean egiten du lan, eta jakintza horrek asko laguntzen dio

zaletasun bideragarria izateko. "Niretzako, ezinbestekoa da mekanika arloa ondo kontrolatzea. Ez baduzu horri buruzko jakintzarik, aberatsa izan behar duzu rally munduan aritzeko. Dirua jaso dezakezu probaren batean aurrealdean geratuz gero, baina, bestela, ia lasterketa guztietan garaikurra ematen dizute, eta horrek ez du autoaren gastuak ordaintzeko balio".

Neska-laguna, kopilotu

Arrakastaren zati handi bat bere neska-lagunari aitortzen dio Idigorasek, Monika Muñoz oñatiarrari; izan ere, hark egiten dizkio kopilotu lanak. "Pilotua eta kopilotua ez badoaz bat, akabo. Gure kasuan, sekulako konplizitatea daukagu. Meritu itzela du nire alboan kopilotu lanak egiteak". ■■■

Txapel berezia eta preziatua



Txapela: buruan jartzen den garaikurra. Ohikoa da pilota edo karta txapelketan, baina ez hainbeste, antza, rallysprinten munduan. Hala ere, Idigorasen amak ez zuen nahi bere semea txapelik gabeko txapelduna izaterik. "Aramaioko sari banaketan, guretzat sorpresa bat zegoela esan zuten, eta han agertu zen ama bi txapelekin".



Idigoras, irribarretsu, Clio Sport autoaren alboan.



Lea-Artibaiko probako irudia.



Bikote txapelduna, garaikurra buruan dutela.

Asier Elgezua

ENEKO AZURMENDI

IRUDIAK: E.A. ETA ASIER ELGEZUA

25 urteko arrasatearra da Elgezua; argazkilaria izateaz gain, bideogintzan autonomo ere ari da lanean.

Nola sartu zinen argazkigintzan?

Zer dela eta?

Txikitatik gustatu izan zait. Gogoratzen dut 10-11 urterekin nire amaren argazki kamerarekin ibiltzen nintzela. Canon bat zen, analogikoa, 70eko hamarkadakoa edo. Mendian aritzen nintzen argazkiak ateratzen, eta elurra egiten zuenean ere bai. 15-16 urterekin, bizikletan ibiltzen nintzen, eta grabatzen hasi nintzen. Gainera, belauna apurtu nuen, eta, ezin nuenez kirolik egin, denbora luzea pasatzen nuen kamerarekin. Ekipoarekin asko trebatu nintzen garai hartan.

Ondoren, ikasketak hasi zenituen.

Hori da. Andoainera joan nintzen, Argazkilaritza eta Irudi Laborategia ikasi nuen, eta gero, Ikus-entzunezkoen Ekoizpena goi mailako formakuntza. Hori bukatzean, nire kabuz lanean hasi nintzen, argazki saioak, bideoklipak-eta egiten. Errealizazioa ere ikasi nuen ostean, eta argazkilaritzatik ikasitako guztia bideogintzan txertatzen hasi nintzen.

Nola sartu zinen lan munduan?

Gauza txikiekin hasi nintzen, baina, pixkanaka, jende ezezaguna nirekin



harremanetan jartzen hasi zen, eta, oraingoz, zortea izan dut. Sektore honetan asko mugitu behar duzu lana aurkitzeko, baina, gauzak argi edukiz gero, ateratzen dira gauzak, gutxika. **Gaur egun, zein proiektu dituzu esku artean?**

Alde batetik, Nafarroako Gobernuaren turismo iragarki bat grabatzen ari naiz, enpresa baten bitartez. Bestetik, Esencia musika talde arrasatearraren bideoklip batzuk grabatzen ere ari naiz.

Argazkilaritza alde batera utzita daukazu, beraz.

Momentu honetan bai; bideogintzan murgilduta nago. Hala ere, norbaitek eskatzen badit, ez daukat inolako

arazorik argazki saio bat egiteko edo argazki batzuk ateratzeko.

Zein argazki mota atera izan dituzu?

Denetik: kontzertuak, paisaiak eta kirolarekin lotutakoak; rallyak eta bizikleta lasterketak, esaterako.

Dronearekin ere ibiltzen zara?

Bai, asko. Gainera, geroz eta jende gehiago ibiltzen da dronearekin.

Bideogintzari dagokionez, zein lan egin dituzu?

Bideoklipak egin izan ditut, Iker Laurobarentzat, Dropentzat eta, batez ere, Esenciarentzat. Horrez gain, *Rompiendo barreras* film laburraren grabaketan ere hartu nuen parte. ■



Artearekin ahalduntzen

EKIN EMAKUMEAK ELKARTEAN EGINGO DUTEN ESTANPAZIO TAILERRA

AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: HELENA AZKARRAGA-URIZAR

Arrasateko Ekin Emakumeak Elkarteak, artea emakumeen ahalduntze tresna moduan ulertzen dute; horregatik, orain dela bi urte, Joana Manzisidor herriko grafitilariarekin, “haren mundura hurbildu ziren, eta, emaitza izugarri positiboa izan zenez, artean *trasteatzeko* itzelezko gogoia piztu zitzaien”.

Ekin-eko kide Helena Azkarraga-Urizarrekin egin zuten topo orduan, eta estanzazioari edo grabatuari buruzkoa gidatzea proposatu zioten: “Ikastaro polita izan zen. Jende oso ezberdina batu zen, esperientzia zutenak eta bakoak; hortaz, dinamika zabalak prestatu nituen. Izotza apurtuta, kopia beharrean, nork bere irudia lantzerantz animatzen dut, beti. Diseinua baino gehiago, esperimendazioa landu gura dugu, aukeran. Ondo marraztea ez da ezinbestekoa, ezta gutxiagorik ere. Denok dakigu marrazkiekin komunikatzen, eta denok marraztu dugu zerbait, ezta?”.

Irudi bat balioan jartzeko

Unibertsiteteak, Arte Ederrak ikasten zebilela, ezagutu zuen estanzazioa –grabatua– teknika Azkarraga-Urizarrekin: “Nahiko gaitetik irakasten duten arren, hasieratik asko gustatu zitzaidan, zure marrazkiak edo amaitutzat identifikatzen

duzun irudi bat balioan jartzeko modu bat delako; izan ere, estanzazioarako paper eta tinta onak erabiltzen dira, eta libreta baten duzun marrazki horri pisu bat ematen diozu, batetik, eta, era berean, erreproduzitzeko aukera ematen dizu, hortaz, gura beste kopia egiteko aukera. Oso teknika erakargarria iruditu zitzaidan horregatik, eta, era berean, bi polo dituelako ere bai: batetik, oso ortodoxoa dena, lan egiteko modu eta ezaugarri tradizionalak mantentzen dituenak, eta, bestetik, oso esperimendatua dena; bi mundu horiek ezagutzeak asko erakarri ninduen”.

Irudi bat euskarri baten transferitzea dela dio, estanzazioa definitzeko eskatuta. “Egur, edo, gure kasuan, plastikoa xafra baten puntzioarekin zulatuta marrazkia egiten dugu. Ondoren, irudia margotu edo tindatu, eta tornukoa deitzen den prentsa antzerako tresnatik pasatzen dugu gero. Hori da oinarrian, eta, hortik aurrera, nahi duzun guztia egin daiteke.

**ESTANPAZIOAREKIN
EMAKUMEA
AHALDUNTZEKO
PROPOSAMENA EKIN
EMAKUME ELKARTEAN**

Grabatua egiterakoan, irudia sukaldatzen ari zara. Prozesuan disfrutatu egin behar duzu emaitza beste bat izan dadin”.

Beharrezko materiala

Euskarri dagokienez, aukera asko daudela dio: “Oihalean, paperean... egin daiteke. Guk kotoizko paper gainean estanzatuko dugu; paper potoloak dira, eta hobeto eusten diote tintari, indarrari eta presioari. Hala ere, kamiseta edo altzari batean ere egin daiteke; obra grafikoa esaten denean, baina, paperean egindakoa dela ulertzen da”.

Marrazteko behar den materiala zerrendatzeko eskatuta, honako hauek proposatu ditu: “Hasierako marrazkiak egiteko, boligrafo edo arkatx bat erabil daiteke. Eta geroago, grabatzeko tinta bereziak –koipea dutenak–, kotoizko papera, torkulua edo pentsa eta puntzioak”.

Hurrengoa, azaroan

“Sortu, barrenak hustu, zure espazioa eta momentua topatu, elkarri lagundu, partekatuta eta gozatu” dira, Ekin-ekoan esanetan, euren ikastaroetako gakoak. Azaroaren 9an hasiko dute estanzazioari buruzkoa. Lau egubakoitzetan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko, deitu 943 79 83 70, 651 70 79 36 edo idatzi emakumeak@ekinmakumeak.eus helbidera. ■



Ekin Emakumeak Elkartean iaz egin zuten ikastaroko lanak.



Iaz egin zuten estanpazioari buruzko ikastaroa.



Helena Azkarraga-Urizarrek egindako estanpazio bat.

Martiri galiziarren omenez

OÑATIKO PARROKIAKO SANTA MARINAREN ALDAREA

MIREIA BIKUÑA

ARGAZKIAK: M.B.

Kale Zaharrarekin eta Kale Barriarekin batera, Santa Marina plazak egituratu zuen Oñatiko hirigune historiko zaharra. 1488ko erreketaren ondorengo dokumentuetan, hainbatetan egiten zaio erreferentzia. Garai hartan, 96 familia bizi ziren han.

Gaur egun Santa Marinar dauden eraikin zaharrenak XVII. mendekoak dira. Inguru horri izena eman zion Santa Marinaren omenezko ermitak. 1505ekoak dira ermitaren inguruko lehen dokumentuak.

Batzarrak egiteko lekua

Iñaki Zumaldek (Oñati, 1926-2011) Oñatiko historiari idatzi zuen monografikoan dio Santa Marinar ermita parrokia moduan erabili zela. XVI. mendean han elkartzen ziren alkatea eta auzoetako ordezkariak. Hori horrela, galiziarra zen martiriaren omenezko ermita handia zen, tamainaz eta edukieraz.

1864an, herri-eskolak egiteko, ermita bota egin zuten; eta barruko elementuak beste leku batzuetara eraman zituzten.

Estilo erromanista

Bereziki aipagarria da Santa Marinaren omenezko aldarea. 1593an berritu zuten, eta, orduko joerarekin bat eginez, aldare soil eta dotorea egin

zuten. Hiru kale eta atikoa ditu, eta estilo erromanistakoa da. Erdian Santa Marinaren irudia dago eta bi alboetan, San Juan, Santa Katalina, Asisko San Frantzisko eta Santa Barbara. Atikoan, Andre Mari Sortzez Garbia dago. Lazarraga leinuaren bi armarri ere baditu aldareak. Akaso, lazarragatarrek ziren ermitaren patroiak.

Hainbat kokaleku

1864an, Santa Marina plazan zegoen ermita bota zutenean, Santa Marinaren omenezko aldarea parrokiara eraman zuten. San Migelen omenezko nabe nagusiaren eskuinaldean, hirugarren zutabe borobilari erantsi zioten. Hori jasotzen du bertan dagoen izkribu batek.

Hori, baina, behin-behineko lekua izan zen. 1886an, parrokiako ezkerreko nabera aldatu zuten. "Toki horretan ezagutu nuen nik, mutiko garaietan", gogora ekarri du Jerardo Elortzak.

Hirugarren leku bat ere izan du Santa Marinaren aldareak, oraingoz azkena dena. 1950eko hamarkadaren erdialdera, Reyes Korkostegi Oñatiko alkate

zela, aldaketa sakonak egin ziren San Migel parrokian. Lekuz aldatu zen elementuetako bat Santa Marinaren aldarea izan zen. Klaustorra ematen duten leihoetako baten ondoko horman kokatu zuten.

San Markosen erritua

XIX. mendera arte zutik egon zen ermitako beste elementu nagusietako bat San Markosen omenezko erretaula izan zen. Balio berezia zuen, haren inguruan egiten zen errituarengatik. Apirilaren 25ean, San Markos egunean, San Migeleko kabiloak prozesioa egiten zuen. Eliztarrek ekitaldian parte hartzeko obligazioa zuten. Joan ezean, erreal bateko isuna ordaintzera zigortzen zituzten.

Prozesioa ermitara heltzen zenean, Santa Marinaren aldare aurrean erreberentzia egiten zuten guztiek, eta ostean, meza esaten zuten parrokoak San Markosen erretaularen aurrean.

Baserritarren egutegian ere leku berezia zuen San Markosek. Era berean, garrantzitsua zen San Jurgiren aldeko ospakizuna, apirilaren 23an. Hori horrela, bi prozesioak batera egiten zituzten, apirilaren 24an.

Ermita bota zenean, San Markosen erretaula hilerri berriko kaperara eraman zuten. Azken berrikuntza egin zenean, erretaula kendu egin zuten. ■

**SANTA MARINAREN
ALDAREA PARROKIAN
DAGO, KLAUSTRO
ALDEKO LEIHOETAKO
BATEN ONDOAN**



Santa Marinaren omenezko XVI. mendeko aldarea, San Migel parrokian duen egungo kokalekuan.

15 urteren ostean, 'Artemanero'



GORKA ETXABE

Igaro dira 15 urte Goienak Arteman sortu zuenetik. Ibarreko beste kooperatiba askoren historia luzea kontuan hartzen badugu, hastapenetan gaudela esan dezakegu, bidearen laurdenera ere ez garela iritsi. Gure inguruko kooperatiba eta konpainia batzuek 65 urte bete baitituzte –horietako asko gure bezero dira gaur–, eta beste asko 50 urteko bidea ospatzen ari dira.

Arteman kooperatiba gaztea da, nerabea. 2011n sortu zen kooperatiba lez; izan ere, ordura arte Goienak bere baitan sortutako sozietate mugatua izan ginen, 2003tik 2011ra, eta komunikazio taldearen itzalean eman genituen pausorik garrantzitsuenak. Sortzez arrasatearrak eta nerabezaroan aretxabaletar bilakatuak. Lokalismo horiek ez dute garrantzirik Debagoieneko mugetatik kanpo, baina gurean markatzen dute, nolabait! Zorionez, bailarako ikuspegi anitzagoa eman digute.

Eta orduan ere, 2011n, Goiena izan genuen alboan. Aldaketak egin genituen zuzendaritzan, taldearen egitura eta enpresaren estrategiak ere bide berrietatik egin zuen aurrera. Diseinu arlotik, ikus-entzunezkoetara, webgintzara, marketin arlora...



ARTEMAN / PMK

Langile-bazkideok

protagonismo handiagoa hartu genuen, Artemanek merkatuan presentzia areagotu zuen, lehenengo kontu inportanteak iritsi ziren, Euskal Herri mailako bezeroak, kooperatibagintza arloko liderrak, hezkuntzan, industrian, zerbitzuetan diharduten konpainia eta marken babesa jasotzen hasi ginen. Handik eta hemendik gure markaren hedapen urteak bizi izan genituen. Intuizioz jokatu genuen askotan, eta urte oparoak izan ziren.

Ordutik hona igaro dira beste zazpi urte, eta urte horiek

**GURE BEZEROAK ETA
LAGUN FIDELAK
'ARTEMANERO'
SENTIARAZI NAHI
DITUGU**

proiektua gero eta sendoago bilakatzeko balio izan dute. Sendotu da Arteman arlo guztietan. Sendotu ditu instalazioak, zerbitzuak, bezeroen arreta, fidelizazio estrategia, produktuak... Sendotu ditu sormena eta eskaintza berriak. Sendo ageri da gaur Arteman estiloa, gure lankideren batek esango lukeen moduan *Arteman style* da gaur gure etiketa.

Urteen joan-etorriak –15 guztira– Arteman esperientziaren sakontzea ekarri du. Bulegoak bizileku bilakatu ditugu, eta, eroso sentitzeaz gain, eroso sentiarazi nahi ditugu gurera datozenak. Sektoreko beste enpresa batzuekin harremanak sendotzeko garaia bizi dugu, Unibertsitatera gerturatzekoa, ezagutzan sakontzekoa eta bezeroei beste inork emango ez diena emateko garaia ere badela uste dugu. Komunikazioaren artisauak garela diogu, eta Arteman hamaika arrazoiengatik berezia dela aldarrikatzen dugu. Gu *Artemanero* sentitzen gara eta gure bezeroak eta lagun fidelak *Artemanero* sentiarazi nahi ditugu. **Zin** dagigu ez dela txarra *Artemanero* izatea... Dastatu guretik! ■

 TESTUA: ITZIAR LARRAÑAGA



POCOPHONE F1

Smartphonea. Xiaomi. 329 euro.

Xiaomiren azpimarka berria da Poco. Goi gamako mugikorren Snapdragon 845 prozesatzailea eta 6 GBko RAMaz gain, 4.000 mAh-ko bateria iraunkorra du. Atzealdea plastikozkoa bada ere, kritika onak jaso ditu erresistentzia aldetik; gutxi zikintzen da eta arina da. Atzeko kamera bikoitza da, 12+5 megapixelekin; aurrekoak, aldiz, 20 mpx ditu.

FITBIT CHARGE 3

Erloju adimenduna. Fitbit. 150 euro.

Smartwatch honen hiru garren edizioak ukimen pantaila hobetu du eta funtzio berriak gehitu dizkio; batez ere, kirolarekin eta osasunarekin lotutakoak: helburuekin lotutako ariketak, emakumeen hilerokoaren monitorizazioa eta motibaziorako talde sozialak sortzeko aukera. Gainera, uretan 50 metroraino murgildu daiteke.

ASUS ZENBOOK S

Ultrabook. Asus. 1.400 euro.

Neurri txikiko ordenagailu eramangarrien merkatuan lehia bizia dute markak. Asus-en UX391ak kilo bat pisatzen du eta 13,3 hazbeteko Full HD pantaila dakar. Berrikuntza nabarmenenetakoa teklaturan egin du; ordenagailua irekita, inklinazio txiki batekin gelditzen da, idazketa errazten du. Bateriak 20 ordura arte iraun dezake, Asus-en arabera.

ZULOa

Zein animalia bizi ote da zulo honetan?
Marraz ezazu, eta bere bi kumeak ere bai.



ELURretan

Bai dibertigarria elurra, ezta? Zorritzarrez, arriskurik ere badu. Hemen jolasean ari den bat, adibidez, hoztu eta gaixotu egingo da. Zein ote da? Ahoa zabalik du, eta lepoan bufanda. Badu zerbait horia, baina gorriarik ez, ezta ubelik ere. Badu zerbait urdina, baina ez dira prakak. Eskuak libre dituen arren, badu elur bola bat menpean.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/



Martin Guardiola Jurado

Arrasate. 3,660 kilo. Irailaren 28a.
Gurasoak: Esther eta Daniel.
Argazkian, Martin, amarekin.



Maia Ugalde Iruin

Bergara. 3,500 kilo. Irailaren 27a.
Gurasoak: Leire eta Mikel.
Argazkian, Maia txikia, aitaitaren besoetan.



Elaia Etxebeste Pavon

Aramaio. 3,760 kilo. Irailaren 24a.
Gurasoak: Amaia eta Iñaki.
Argazkian, Elaia, sehaskan lasai-lasai.



June Merino Gallego

Bergara. 2,930 kilo. Irailaren 24a.
Gurasoak: Laura eta David.
Argazkian, June, sehaskan lo.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz
GOIENAREN egoitzara.


Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik
argitaratuko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



guraso.eus

Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulatuak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarriketak.



ttop

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

Ttap euskarazko aldizkari digitala eta multimedia deskargatu zure mugikor edo tabletean.

Aste honetan Iker Lauroba eta Itziar Ituñorekin egon gara solasean.



DESKARGATU
APP Store-n



DESKARGATU
Play Store-n